


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2012ko UZTAILA

Euskal AEko industri jarduera % 9,0 murriztu zen 2012ko uztailean

Euskal AEko industri produkzioa aurreko hilarekin, 2012ko ekainarekin, alderatuta, % 2,8 jaitsi zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2012ko uztailean % 9,0 murriztu zen Euskal AEko industria produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousan, 2011ko hil beraren aldean. Aurreko hilabetearekin konparatuta, hau da, 2012ko ekainaren aldean, Euskal AEko industri produkzioa % 2,8 jaitsi da, baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

1. grafikoa. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Hilez-hilekoak. Urte arteko hazkunde-tasak. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea (IPI)

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusienak sailkatu ostean, 2012ko uztaileko indizearen bilakaera jaitsi egin da sektore guztietan, 2011ko uztailearen aldean: Bitarteko ondasunak % 9,3 beheratu dira, Ekipo-ondasunak % 9,0 jaitsi, Energia 6,5 murriztu da, eta Kontsumo-ondasunak, denak multzoan hartuta, % 11,5 txikitu dira, alde batetik, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek % 12,1 murriztu direlako, eta, beste alde batetik, Kontsumo-ondasun iraunkorrek % 9,2 jaitsi direlako.

2012ko uztaileko hil arteko aldakuntza, 2012ko ekainaren aldean, ez da berdina izan industri talde handi guztietan. Energia % 1,6 igo da, Bitarteko ondasunak % 2,2 beheratu dira, Ekipo-ondasunak % 4,2 jaitsi, eta Kontsumo-ondasunak, denak multzoan hartuta, % 6,0 txikitu dira, alde batetik, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek % 9,3 murriztu direlako, eta, beste alde batetik, Kontsumo-ondasun iraunkorrek % 8,0 jaitsi direlako.

2012ko uztailen eta aurreko urteko hil beraren aldean hazkundera izan duen sektore garrantzitsu bakarra Elikagaien industriak, edariak eta tabakoa izan da, % 1,3 handitu baita.

1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	-6,7
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-12,9
09 - Kautxua eta plastikoak	-10,7
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-8,9
13 - Makineria eta tresneria	-8,4
14 - Garraio-materiala	-11,5
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	1,3
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-11,5
12 - Material eta tresneria elektrikoa	

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Aldiz, Kautxu eta plastikoa % 12,9 jaitsi da urte artean; Zura, papera eta arte grafikoak % 11,5; era berean, Energia elektrikoa, gasa eta lurruna ere behera joan dira % 11,5.

Lurraldeetan, Industri Produkzioaren Indizearen uztaileko urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiruretan: Araban % 10,1 jaitsi da, Bizkaian % 7,1 eta Gipuzkoan % 10,4. Hil arteko hazkunde-tasak ere negatiboak izan dira hiru lurraldeetan: Bizkaian % 1,3 jaitsi da, Gipuzkoan % 3,4 eta Araban % 4,5, 2012ko ekainaren aldean.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Hazkunde-tasak. 2012 uztaila (p)

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	2012Uzt/2011Uzt	M(2012Uzt) / M(2011Uzt)*	2012Uzt/2012Eka	2012Eka/2012Mai
Indize orokorra				
Euskal AE	-9,0	-6,4	-2,8	0,8
Araba/Álava	-10,1	-4,4	-4,5	1,6
Bizkaia	-7,1	-7,6	-1,3	1,8
Gipuzkoa	-10,4	-6,4	-3,4	-0,5
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-11,5	-5,6	-6,0	1,5
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-9,2	-10,2	8,0	-5,6
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-12,1	-4,3	-9,3	3,3
Ekipo-ondasunak	-9,0	-3,5	-4,2	-0,3
Bitarteko ondasunak	-9,3	-7,1	-2,2	3,2
Energia	-6,5	-12,7	1,6	1,2

(*) 2012ko urtarriletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2011ko aldi beraren aldean

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Argibide gehiago eskuratzeko:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari \(IPI\) buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari \(IPI\) buruzko datu-bankua](#)